

bilbao **museoa**

**BBKateak**  
**Vieira da Silva –**  
**Garaigorta**

Arte Ederren Bilboko Museoa  
Museo de Bellas Artes de Bilbao

**bbk** 

# Vieira da Silva – Garaigorta

## 12. aretoa

Eraikin zaharra


Lehen solairua

## Arkitektoaren sabela

1784an, Étienne-Louis Boullée frantziarrak arkitektura ameslariaren paradigma sinatu zuen: *Newtonen zenotafioa*, sekula eraiki ez zen esfera aratz eta erraldoia. Arkitektura gertagaitza ez-lekuak eraikitzeko interesa duten bi artista hauen arteko lotura ere bada. Vieira da Silvak korridore zirrargarri bat margotu du, agian absentzia bat aditzera ematen duena, eta Garaigortak, berriz, bere proiektuaren fikzioa antolatzen du zomorro-mahai batean, non leize batek, suge batek edo esku batek metropoliaren denbora perfektua asaldatzen duten.

# 1


## Eraikin zaharra Lehen solairua



# **Maria Helena Vieira da Silva**

1908-1992

Portugaldarra zen jatorriz margolari eta grabatzaile hau, baina Frantzian lan egin zuen. Hain zuzen ere, herrialde hartako Arteen Sari Nazional Handia eskuratzen lehen emakumea izan zen, 1966an. Hogeiko hamarkadaren amaieran hasi zuen bere ibilbidea, eta ospea lortu zuen pertzepzio bisualaren azterketa proposatzen zuten lirismo handiko obra abstraktuak sortuz. Lerro markatuekiko marrazkia, irudi geometrikoak eta nahaspilatuak, argiaren dardara eta espazio zehaztugabeak ditu bereizgarri nagusi. Margolanez gainera, aipatzekoak ditu zeramikarako diseinuak, beirateetarakoak –Reimsko katedralerako egindakoak, esaterako–, eta liburu ilustrazioak. 1962an São Pauloko Bienaleko Pinturako Nazioarteko Sari Handia jaso zuen, eta 1991n Frantziako Ohorezko Legioko Ofizial izendatu zuten.




## **Dorreak**

1977. Koloretako litografia paperean

Paper gaineko obrak garrantzi handia du Vieira da Silvaren ibilbidean. Grabatu teknika asko landu zituen, hala nola akuaforte, punta lehorra edo litografia, lehen aldiz 1948an erabili zuena eta 1961etik aurrerako lanetan indar handiz berriro agertu zena. Pinturetan bezala, haren obra grafikoan nahasian ageri dira irudi fantastikoak eta errealak, grafismo zorrotzen bidez sortutako joko espazial nahaspilatuetan.

1983an eskuratua



## Ispiluen korridorea

1981. Olioa mihisean

Vieira da Silvaren pintura poetiko eta ia abstraktuek espazioarekin eta perspektibarekin jolas egiten dute, eta ikuslea gonbidatzen dute norabide anitzeko bolumenetan barrena noraezean ibiltzera. Marra linealek eta erretikulek itxura klaustrofobikoko pasabide, labirinto edo gelen presentzia iradokitzen dute. Toki bakartiak, lausoki *errealak*, zeinetan ez baitago ibiltzerik edo bizitzerik; esate baterako, ispilu korridore argitsu –baina hauskor eta estu– hau, materia piktoriko trinko eta ia monokromokoa.

1982an eskuratua

# Charo Garaigorta

1961

UPV/EHUko Arte Ederren Fakultatean egin zituen ikasketak, 1979 eta 1984 artean, eta 1989an New Yorkera aldatu zen, Columbiako Unibertsitatean Artea eta Hezkuntza ikastera. Askotariko formatuak eta *lanerako gorputzak* abiapuntu hartu ditu bere praktika artistikoa garatzeko, hala nola marrazkia, idazketa, eskultura eta bideoa. Eta horrela jardunez sortutako proiektuetan, elkarrekin gurutzatzen dira arkitektura, hirigintza, biologia, literatura eta zientzia, esaterako. Guztietan ageri da fikzioaren ideia bat, gizarte distopikoei erreferentzia egiten diena. Garaigortak hezkuntza sailetan lan egin du New Yorkeko MoMA, Bronx Museum of the Arts, El Museo del Barrio eta Guggenheim Museumen, eta Gasteizko Artium Museoarena zuzentzen du 2001. urteaz geroztik.



## “Aireportuak” serieko 10 marrazki

2001-2023. Akuarela, tinta eta arkatza Mylar gainean

Marrazki hauek denbora luzeagoa eta hedadura zabalagoa hartzen duen proiektu baten parte dira; proiektu horrek orobat biltzen ditu animaziozko filmak edo liburu bat, esaterako, baina aireportuen arkitektura ardatz dela, betiere: toki bat berregiten duena hiri idealaren eta plaza publikoaren ametsa, baina zeinetan joan-etorriak, gizakien mugimendu etengabeak, ez baitira beti bihurtzen elkarreragin. Poliester gardenezkoak dira, eta aireportuen plano errealak dituzte abiapuntu, baina artistak manipulaturik daude, eta animalia edo landare jatorriko elementu biomorfoak iradokitzen dituzte, lehen begiratuan.

Artistaren bilduma





## El Instituto de los Pasillos Complejos (IdePC)

2021. Teknika mistoa

Proiektuaren maketa eta, aldi berean, objektu eskultorikoa da pieza hau, eta mugitzera edo eraldatzera doalako sentsazioa eragiten du. Ohol bat da, lau hanka artikulatutan bermatua, zeinetan zehar igarotzen baita dorre handi bat; dorreak goiko plano eta behekoa lotzen ditu, eta ispilu efektua eragiten du horrela. Alde batean nahiz bestean, hainbat arkitektura elementu ikusten dira –korridoreak, etxeak, akuario bat–, *bizigarritasunaren* agintza iradokitzen dutenak. Piezak oro har izaera geometrikoa badu ere, egileak lan honetan txertatu du bere eskua, tamaina errealean, baita suge bat ere, Los Angelesko Hollywood Bowl gogorarazten duen bolumen zilindriko handi baten barruan.

2022an eskuratua

# BBKateak

*BBKateak* erakusketa-proposamenaren helburua da bildumari narratiba berriak ematea, museoaren handitze proiektuko lanek iraun bitartean. Aldizka eguneratuko den aurkezpen-programa dinamiko baten bitartez, eraikin zaharreko areto bakoitzak bi artistaren eta haien lanen espero gabeko aurrez aurreko bat erakutsiko digute; denboran edo/eta jatorri kultural edo geografikoan urrunekoak izan daitezkeen izenak izango dira; horrela, arteari buruzko ikuspegi eraldatzailea eta eraikitzen ari dena iradokiko da. Modu horretan, museoaren metamorfosia islatuko da etengabe aldatzen ari den bilduma batean.

Programa *Hamahiru Centaurusera* lanak abiaraziko du; Sergio Prego artistaren eskultura-proiektua da, aretoak hustetik sortua.